

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuko kartela diseinatzeko lehiaketa

Eusko Ikaskuntzak kartel-lehiaketarako deialdia egin du, 2024an egingo den Eusko Ikaskuntzaren hurrengo Kongresua iragartzeko

Donostia, 2023ko ekainak 15. Eusko Ikaskuntzak dei publikoa egin du irailaren 10era arte Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuko kartela osatzeko proposamenak aurkezteko. 1.500 euroko sari bakarra jasoko du kartel irabazlearen egileak.

“Elkartzen gaituena” lelopean, Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua 2024ko urriaren 2, 3 eta 4an izango da Gasteizen, eta, hain zuzen ere, horren berri eman beharko da kartelean. Artista bakoitzak bi obra aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta horiek originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira. Proposamenak paperean nahiz euskarri informatikoan aurkeztu ahal izango dira, egileen identifikaziorik gabe.

Lau kartel finalista hautatuko dira, eta horien artean aukeratuko da irabazlea. Horretarako, epaimahai aditu batek bozketa egingo du, sormena, kalitate grafiko eta plastikoa, ikusgarritasuna eta erreproduzitzeko eta editatzeko erraztasuna kontuan hartuta. Era berean, Eusko Ikaskuntzako bazkideek bozketa birtualaren bidez parte hartuko dute.

Oinarriak bere osotasunean ikusgai daude www.eusko-ikaskuntza.eus web orrialdean.

NOTE D'INFORMATION

Concours pour la conception de l'affiche du XIX^e Congrès d'Études basques

Eusko Ikaskuntza lance le concours d'affiche pour son prochain Congrès d'Études basques qui se déroulera en 2024

Donostia-San Sebastián, 15 juin 2023. Eusko Ikaskuntza lance un appel public à tous ceux qui souhaitent présenter leur proposition pour illustrer l'affiche du XIX^e Congrès d'Études basques. Les participants ont jusqu'au 10 septembre pour remettre leur travail. L'auteur de l'affiche gagnante remportera un prix d'une valeur de 1500€.

Sous la devise "*Elkartzen gaituena*", le XIX^e Congrès d'Études basques se tiendra les 2, 3 et 4 octobre 2024, dates à reprendre pour illustrer ladite affiche selon le cahier des charges du règlement. Chaque participant peut présenter un maximum de deux œuvres qui doivent être originales et inédites. Les maquettes peuvent être remises à la fois sous format papier et virtuel sans aucune identification de l'auteur.

Quatre finalistes seront sélectionnés parmi lesquels le concepteur de l'affiche gagnante. Cette dernière sera choisie par vote d'un jury constitué d'experts qui tiendra compte de la créativité, de la qualité graphique et plastique, de l'accroche et de la facilité de reproduction et d'édition. De même, les membres d'Eusko Ikaskuntza participeront à l'élection par vote virtuel.

Le règlement est à consulter sur : www.eusko-ikaskuntza.eus.